

GURE SINISMEN OSO OSOA.



«15. Eta Jesusek diotsate. Eta zuek ¿nor naizala diozute?

16. Eranzun eta, esan zuen Simon Pedrok: Zu zera Kristoa, Jaungoiko biziaren Semea.

17. Eta eranzuten zuela Jesusek, esan zion ari: Doatsua zera Simon, Joanesen semea; ezen ez aragik eta ez odolek ere ezdizu ori agertu, baizik nere Aita zeruetan danak.

18. Eta nik esaten dizut ezen zu zerala Pedro eta arri onen gañean nik alchatuko dedala nere Eliza, eta infernuko ateak eztute nere Eliza garaituko sekulan.

19. Eta zuri emango dizkitzut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurraren gañean lotutzen dezuna, lotua izango da zeruetan; eta zuk lurraren gañean askatzen dezuna, askatua izango da ere zeruetan.»

(Jesu-kristoren Ebanjelio Santua, San Mateoren arabera,
XVI-garrengo buruan.)

Jainkozko itzak ezin dezake utsik egin inñola ere.

Alperrik Elizaren etsayak ostu dituzte Aita Santuaren ondasunak; alperrik bere esku denboratarra kendu diote; alperrik zar gaiño benegarri bat izateaz ere, baztertu dute Batikanoko Jauregian, Betiko-Uri guziaren legezko eta egiazko jabea bera dala kontugaberik.

Gaur edo bigar, aurten edo urte etortzekoak diranetan, ostikope-tuak, zapalduak, ezereztatuak geldituko dira kendutzalle biurri eta madarikatu ayek.

¡Zeru eta Lurraren Jauna! Egizu, arren, garaipen au gure begiok ikusi dezatela, baña gure Leon XIII-garren argidotar, aundi, zuur, jakintsu, eztitsu eta maita-maitagarriaren egunetan.

Ala izan dedilla.

ARTURO CAMPION.

Iruñan, 1887-garren urteko Uztaren 25-ean

